

Euskal geneak Britainian

Irlanda, Gales, Eskozia nahiz Ingalaterrako lurak populatu zituzten lehen gizakiak euskal kostaldetik joan zirela uste du Stephen Oppenheimer genetista eta 'The Origins of the British' liburuaren egileak.

Ainhoa Oiarzabal

«a bost urte igaro dira Stephen Oppenheimer (1947, Ingalaterra) genetista eta Oxfordeko irakasleak *The Origins of the British* (Britainiarren jatorria) liburu argitaratu eman zuenetik. Liburuaren tesi nagusia, ondokoa: zeltak ez dira Britainiako aborigenak. «Ebidentzia genetikoen arabera, britainiarren eta irlandarren arbasoak Izotz Aroaren euskal babeslektutik datoz (duela 15.000 urte), eta zeltak, ziurrenik, Brontze Aroan (K. a. 1500-1200) etorritako gutxiengo inbasoreak izan ziren. Zeltak ez dute bikingoek edo normandoek baino inpaktu handiagorik izan erreserba genetikoa», dio Oppenheimerrek bere hipotesia azaltzeko orduan. Azterketa genetikoa oinarrituta, azken liburu horren aurre-

tik beste bat idatzi zuen gizakia- ren lehen immigrazio mugimenduei buruz: *Out of Eden: the Peopling of the World* (Edenetik at: munduaren populatzea).

Duela bi aste Garesen (Nafarroa) antolatutako Euskaren Jatorriaren VI. Biltzarrean parte hartzeraz gonbidatu zuten Stephen Oppenheimer, genetikaren alorrean eginiko ikerketek hizkuntzaritziari ekarpenak ekar diezazkielako. Dena dela, bere ikerketak ikerketa genetikoa direla zehaztu nahi izan du Oppenheimerrek; bera ez dela hizkuntzalari. *Igandea*-ri azaldu dionez, ikerketaren baliorik handiena da orain arte Erresuma Batuko eta Irlandako populazioaren jatorriari buruz eginiko hainbat lan elkarren ondoan jartzea eta hipotesi berriei bidea irekitzea: «Ikerketa arkeologikoak, ikerketa genetikoa, testu klasi-

koen interpretazio berriak... hori dena bildu dut. Izan ere, nik uste dut XIX. mendeko arazorik handienetakoa izan dela aurretik lortu nahi zen helburua erdiesteko bideratu zirela ikerketak. Eta nire ustez, testu klasikoak berriakurri behar ditugu orduko haiek zer esan nahi ote zuten ulertzeko».

Herodotoren hutsegitea

Oppenheimerren arabera, zeltak jatorriari eta zabalkundeari buruzko mito faltsuak zabaldu dira XIX. mendez geroztik. Esaterako, Erdialdeko Europan sortu —Alpeen iparraldean— eta handik, Europan gehiena inbaditu zutela, Britainia barne, Burdin Aroan (K.a VIII. mendea). «Kontua da jatorri hori desegokia dela garaia- gatik, lekuagatik, geneengatik eta hizkuntzagatik [...] Kontzeptu hau orain 2.500 urte Herodoto historialariak egindako hutsegite batetik dator; zeltak buruzko iruzkin labur batean, Danubioren sorlekuan kokatu zituen». Baina antza, Danubioren sorlekua Pirinioetan zegoela zioen Herodoto. Eta Oppenheimerren ustez, ibaiarekin nahastu zen Herodoto, eta ez mendikatearekin, Henri d'Arbois historialari frantziarrak XIX. mendearen amaieran interpretatu zuen bezala.

Hark nazio zelta Alemaniaren hegoaldean kokatu zuen, eta ideia hori berridatzi da gerora idatzitako liburu eta testu klasikoetan. «Okerrekoa da zeltak jatorriaren ikuspegi ortodoxoa erabiltzea, haren benetako jatorria zein den jakitea oztopatu baino ez duelako



«Britainiarren eta irlandarren arbasoak Izotz Aroaren euskal babeslektutik datoz»

«Zelena kultur inbasioa izan zen, ez hainbeste jendearen ordezkapena»

STEPHEN OPPENHEIMER
'The Origins of the British' liburuaren egilea

egiten», haren ustez faltsua baita zeltak jatorria Erdialdeko Europan kokatzen duen teoria. Benetako jatorria zein ote den galdetuta, «pistak» baino gehiago ez di-

tuela azaldu dio *Igandea*-ri, eta pista horiek Europa mendebaldera eramaten dute. Hain justu, bere ustea da handik eta Iberiatik joan zirela zeltak Britainiara eta Irlandara, Brontze Aroan: «Jada han beste nonbaitetik etorritako bizilagunak bizi zirenean. Hau da, euskal aterpetik etorritako giza taldeak zeudenean». Oppenheimerren arabera, geroko immigrazio horietan hizkuntza ere eramaten zuten —hori arrazoitzeko, Europa mendebaldean dagoen izen zeltak dentsitate handia nabarmen zuten du—, baina jendea ez zuten ordezkatu. «Kultur inbasioa izan zen, ez hainbeste jendearen ordezkapena».

R1b markatzailea

Oppenheimerrek R1b markatzaile genetikoa izan du euskarri bere hipotesia sustatzeko; hau da, markatzaile horren arabera, ahaidetze harremana dago irlandarren, galestarren, euskaldunen eta ingelesaren artean. Europa mendebaldearen atlantikoko kostatik barrena zabaldu zen markatzaile genetikoa hori duela 15.000 urtetik 7.500 urtera bitartean, oraindik irak kontinenteari lotuta zeudela, bidaia hura egin zuten gizakiek batera. «Gutxi gorabehera, Britainiaren arbasoen hiru laurdenak Europako ipar-mendebaldeko lurraldeetara heldu ziren ehiztari-biltzaile gisa».

Izan ere, duela 15.000 urte hasi zen bukatzen azken Izotz Aroa. Horren aurretik, Europa ia gehiena izotz geruzak handi bat zenez, gizakiek ondoko babeslekuetan ezarri zuten bizitokia; euskal aterpean (Kantauriko eta Akitiako kostaldean) eta Balkanen inguruetan (Moldavia eta Ukrainan). «Izotza urtu ahala, landareak eta animaliak hegoaldeko iparraldera joaten hasi ziren, eta hain atzetik, gizakia». Horrela hasi zen gizakia Europa populatzen.

Euskal aterpetik irteten ziren gizakien lehen immigrazio handi hori gertatu eta gero, beste immigrazio batzuk izan ziren Europan. Garrantzitsuenetakoa Neolitikoan (K.a. 7.000-4.000 urte artean) izan zen, eta orduan iritsi ziren Moldavia eta Ukrainako babeslektutik irtendako gizakia Britainia eta Irlandara. Baina haien eragin genetikoa ez da hainbestekoa izan. Bestek beste, izotza urtzek sortu zituen uholdearen eraginez, kontinentetik berezi eta irla bilakatu baitziren Britainia eta Irlanda. «Bereizketa fisiko horrek lagundu egin du genetikaren kapsula hori eusten denboran zehar».

Ipar-mendebaldeko Europaren kolonizazioa duela 15.000-7.500 urte

Klima eta itsas maila duela 15.000 urte

